



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO OTSAILAREN 12AN GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2019/01/29KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek 2019ko urtarrilaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- URTE NATURALA HARTZEN DUTEN 2018KO KIROL JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA.

Esp.zk.: KI.01/2018-0010

Ikusirik

2018ko kirol arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 13an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez.

Epea 2018ko martxoren 12an amaitu ondoren, lerro bakoitzari zegozkien diru-kopuruak erabaki ziren eta alegazioak egiteko epea zabaldu zen.

Alegazio-epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ez zenez-aurreneko zatia eskatu zuten elkartei %50a eman zitzaien.

Urte naturala hartzen dituzten jarduerak zurrizteko, elkarteek 2019ko urtarrilaren 11arteko epea zuten.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, zuriketa hauek aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Eta kontuan harturik



Usurbilgo Udala

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2018ko kirol egitasmoak garatzeko eta urte naturala hartzen dituzten dirulaguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenatarako

Tximeleta	196,28 €
Andatza MT	1.812,64 €
Baxurde Txiki	593,45 €
Buruntzazpi Tx. Esk.	585,45 €
Beterri Sub	22,40 €
Usurbil JC	2.778,37 €
Zubieta PE	522,08 €

2.- Kirol elkarteak ez direnen kirol jarduerak:

San Praixku Guraso Eskola	82,83 €
---------------------------	---------

Bigarrena: Gastu hauek aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A 20-2018)

1 4300 481 341 00 07 Kirol jarduerak antolatzen dituzten taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak (A 23-2018)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri ematea.

Laugarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:40etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.